



ETXALAR
KULTUR ETXEA

“AZKUA” PR-NA 12

Luzera.: 9,150km Desnibela:685mt Zailtasuna: Erdikoa Denbora:3 ordu.

Mendi tontor ikusgarria: Bidasoaldeko, Euskal Herriko kostaldeko eta Goi Pirinioko ikuspegi apartak.

IBILBIDEA

- 0,000 km: **ETXALAR**, herriko plaza (100m). Irungo errepidetik joan eta Tximista erreka pasa baino lehen ezkerreko karrikatik igo (Kanposanturantz).
- 0,205 km: Bidegurutzeta. Eskuineko karrika zelaitik segi (Azkuako kartela).
- 0,325 km: Kanposantua. Haren atzetik segi, Larrapil-Sarriku auzoko bide asfaltatutik.
- 0,710 km: Bidea bitan banatzen da. Ezkerretik segi, bide asfaltatutik eta basoan barna.
- 1,400 km: Iturraldeko Borda baserria (190m) eta gero bidea bitan banatzen da. Erdiko lurrezko bide zelai eta zabaletik segi, belagien maldatsuen artean.
- 1,825 km: Bidea bitan banatzen da. Eskuineko bide zabala utzi eta ezkerretik igo, traktore bide aldapatsutik.
- 2,600 km: Eskuinera bihurtzea egin eta gero, **Marimigeleneko bizkarra** (356m), harizti zahar batean. Arotzeneko Borda baserriko bidea ezker utzi eta haren belagia mugatzen duen harresi baten ondotik, bizkarreko bidetik.
- 2,935 km: Bidegurutzeta. Eskuinetik segi, bizkarrean gora, mendi larreen artean.
- 3,600 km: Bidea bitan banatzen da mendi bizkarrean (505m). Pista utzi eta eskuinetik igo, bizkarreko bidexkatik, Mendixorrotx tontorra inguratuz.
- 4,300 km: Mendi bizkarra eta lepoa (590m). Mendi bizkarra utzi eta ekialdeko magaletik bidexka zuzenetik igoko gara. Azkeneko tartean pagadia agertuko da.
- 5,270 km: **Soralarreko lepoa** (707m), pagadi bat ezkerre utzi eta gero. Ezkerretara jo eta zuzen igo, ongi definitua ez den bidexkatik (bat baino gehiago bada).
- 5,600 km: **AZKUAKO TONTORRA** (787m), belartsu eta zabala, eta geodesia bertzea. Jaitsiera: iparralderantz jo, bizkarreko larretatik eta beti ekialdeko amildegi handia eskuinera utzita. Handik behera malda pikoa, ongi definitua ez den bidexkatik.
- 6,820 km: Sasi lepoa (550m), pagadia eta pista ezkerretik. Zuzen jaitsi, pista nahiz bizkarretik, mendi larretan barna.
- 7,350 km: **Artzameneko bizkarra** (425m). Bidea bitan banatzen denez bi aukera: pista nagusitik eskuinera jo eta magaletik jaitsi edo bizkarreko bidexkatik zuzen jaitsi. Bizkarretik jaitsiko gara; malda gero eta pikua.
- 8,050 km: Etxea (220m) eta Artzameneko pista Etxalarrera jaisten dena. Pista zeharkatu eta, bizkarra mantenduz, etxearen ondotik doan bidexkatik jaitsi.
- 8,390 km: Baserria, lizarrak eta Etxalartik igotzen den pista zementatua. Bertatik jaitsi.
- 8,825 km: Zugarramurdiko bide asfaltatua, Larrapil-Sarriku auzoa (110m). Ezkerretik segi.
- 9,150 km: **ETXALAR**, herriko plaza (100m). Ibilbidearen hasiera eta bukaera.